



ORIOKOUNDALA

AKTA

Udalbatzarraren ezohiko bilkura

EGUNA: 2011ko maiatzaren 17a, asteartea

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa, udaletxean

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 19:00 **BUKATZEKO ORDUA:** 19:50

BERTARATUAK:

Alkatea

Jon Redondo Lertxundi

Zinegotziak

Noemi Ostolaza Arkauz, Martxiel Genova Solaberrieta, Angel del Hoyo Bravo, Karmele Belasko Garro, Jose M. Goiburu Manzisidor, Leire Zinkunegi Lopez de Gereño, Iñaki Garcia Aranbarri, Iñaki Koldo Iturain Azpiroz, Juan Vicente Lasa Karrikaburu eta Jesus Jose Juan Rodriguez Pousa.

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi

Aztergai zerrenda irakurri baino lehen, udal idazkariak hartzen du hitza eta adierazten du talde mistoko Karmele Belasko, Joseba Goiburu eta Leire Zinkunegi zinegotziek mozioa aurkeztu dutela, aztergai-zerrendan sartzeko. Mozioa Etxerat elkartearen proposamenez aurkeztu dute eta gaia honako hau da: euskal preso politikoekiko elkartasun egun bat Orion ospatzea. Idazkariak dio, mozioa aztergai zerrendan sartzeko, udalbatzakideen legezko kopuruaren gehiengo absolutuaren aldeko botoa behar dela eta, beraz, sei aldeko boto behar direla.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Belasko (talde mistoa), Goiburu (talde mistoa), Zinkunegi (talde mistoa), Garcia (EB-B/Aralar) eta Lasa (EA), guztira **BOST ALDEKO BOTO**; abstentzio botoak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ),



Genova (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Iturain (EB-B/Aralar) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **SEI ABSTENTZIO BOTO**]:

ATZERA BOTATZEA talde mistoko Karmele Belasko, Joseba Goiburu eta Leire Zinkunegi zinegotziek egin duten eskaria, Etxerat elkartearen izenean euskal preso politikokoekiko elkartasun egun bat Orion ospatzeari buruzko mozioa gaurko aztergai zerrendan sartzeko.

AZTERGAI ZERRENDA

- 1.- 11/2010, 12/2010, 14/2010, 15/2010 eta 16/2010 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteen berri ematea. Kreditu aldaketa horiek kreditua transferitzeko, kreditua gaitzeko, kreditua gehitzeko, kreditua transferitzeko eta kreditua gaitzeko modalitateetan eginda daude, hurrenez hurren.
- 2.- 1/2011, 2/2011, 3/2011 eta 4/2011 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteen berri ematea. Kreditu aldaketa horiek kreditua inkorporatzeko, kreditua gaitzeko, kreditua transferitzeko eta kreditua gehitzeko modalitateetan eginda daude, hurrenez hurren.
- 3.- Lehen onarpena ematea, egoki bada, 5/2011 kreditua aldatzeko espedienteari, kreditua gehitzeko modalitatean.
- 4.- Onartzea, egoki bada, Orioko Udalaren eta Orioko lau ikastetxeen legeordezkarien artean sinatuko diren elkarlan-hitzarmenen zirriborroak eta alkateari ahalmena ematea hitzarmen horiek sinatzeko, Orioko Udalaren izenean.
- 5.- Behin-behineko onarpena ematea, egoki bada, Orioko Hiri Antolamendurako Plan Nagusiari. Plan Nagusia honako hauek idatzi dute: Manu Arruabarrena eta Santiago Peñalba arkitektoek eta Mikel Iriondo abokatuak.
- 6.- Behin-behineko kalifikazioa ematea, egoki bada, Orioko Kasko Historikoa Birgaitzeko Plan Bereziaren 3. hirigintza-jarduketako udal etxebizitza tasatuak sustatzeko proiektuari.
- 7.- Onartzea, egoki bada, talde mistoko Karmele Belasko, Joseba Goiburu eta Leire Zinkunegi zinegotziek hondakinen gestioa dela-eta aurkeztu duten mozioa.

Esan-eginak

- 1.- **11/2010, 12/2010, 14/2010, 15/2010 ETA 16/2010 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEEN BERRI EMATEA. KREDITU ALDAKETA HORIEK KREDITUA TRANSFERITZEKO, KREDITUA GAITZEKO, KREDITUA**



GEHITZEKO, KREDITUA TRANSFERITZEKO ETA KREDITUA GAITZEKO MODALITATEETAN EGINDA DAUDE, HURRENEZ HURREN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 11/2010 espedienteak 10.000 euroko zenbatekoa du; 12/2010 espedienteak, 13.231 eurokoa; 14/2010 espedienteak, 354.209 eurokoa; 15/2010 espedienteak, 39.834 eurokoa; eta 16/2010 espedienteak, 42.861 eurokoa.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da.

2.- 1/2011, 2/2011, 3/2011 ETA 4/2011 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEEN BERRI EMATEA. KREDITU ALDAKETA HORIEK KREDITUA INKORPORATZEKO, KREDITUA GAITZEKO, KREDITUA TRANSFERITZEKO ETA KREDITUA GEHITZEKO MODALITATEETAN EGINDA DAUDE, HURRENEZ HURREN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 1/2011 espedienteak 4.170.004,67 euroko zenbatekoa du; 2/2011 espedienteak, 99.994 eurokoa; 3/2011 espedienteak, 121 eurokoa; eta 4/2011 espedienteak, 144.884 eurokoa.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da.

3.- LEHEN ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, 5/2011 KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEARI, KREDITUA GEHITZEKO MODALITATEAN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Kreditua aldatzeko espedientea kreditua gehitzeko modalitatean egina dago eta 385.044 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hazienda, Pertsonala eta Kalitatea batzorde informatzaileak 2011ko maiatzaren 16an egindako bilkuran emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Genova (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Belasko (talde mistoa), Goiburu (talde mistoa), Zinkunegi (talde mistoa), Lasa (EA) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **BEDERATZI ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz. Abstentzio botoak: Iturain (EB-B/Aralar) eta Garcia (EB-B/Aralar), guztira **BI ABSTENTZIO BOTO**]:

1.- **LEHEN ONARPENA EMATEA** 5/2011 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Kreditu aldaketa kreditua gehitzeko modalitatean egina dago eta 385.044 euroko kopurua du.

2.- **JENDAURREAN JARTZEA** kreditua aldatzeko espediente hori, ondoko arau hauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza-kontu-hartzailletza



- b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontaktzen hasita.
- c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.
- d) Inpugnatzeko arrazoiak: Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.
- e) Aurkezteko bulegoa: Udalaren sarrera erregistro nagusian, bulego orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).
- f) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazio edo oharrik jaso gabe, kreditu aldaketarako espedientea onartutzat joko da behin betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

4.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIKO UDALAREN ETA ORIKO LAU IKASTETXEEN LEGE-ORDEZKARIEN ARTEAN SINATUKO DIREN ELKARLAN-HITZARMENEN ZIRRIBORROAK ETA ALKATEARI AHALMENA EMATEA HITZARMEN HORIEK SINATZEKO, ORIKO UDALAREN IZENEAN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Lau ikastetxeak honako hauek dira: Orioko Herri Ikastola kooperatiba elkarte, Zaragueta Herri Eskola, Maria Maestra haurreskola eta San Nikolas haurzaindegia.

Karmele Belasko zinegotziak hartzen du hitza eta, talde mistoaren izenean, proposatzen du hitzarmenen zirriborroen bosgarren klausularen bukaeran honako testua eranstea:

Nolanahi ere, Jarraipen batzordeak txosten bat igorriko dio Udaleko Hazienda batzordeari, eta hark diktaminatuko du lankidetzaren hitzarmena luzatu, aldatu edo bukatutzat emateari buruz, udalbatzarrak erabaki aurretik.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAIIKA BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]: Karmele Belaskok egindako proposamena **ONARTZEA**.

Joseba Goiburu zinegotziak hartzen du hitza eta, talde mistoaren eta EAren izenean, testu bat irakurtzen du, bi taldeen botoa arrazoitzeko; testuak, hitzez hitz, honela dio:

HITZARMENARI BURUZ UDAL PLENOAREN AURREAN EGITEN DUGUN ADIERAZPENA



Gaurko agerraldia azken legegintzaldian Eusko Alkartasunaren eta Ezker Abertzalearen zinegotzi izan garen Bixente Lasa, Karmele Belasko, Joseba Goiburu eta Leire Zinkunegiren hausnarketa bateren ondorio da eta honen berri eman nahi diogu Orioko herriari. EA eta EAE alderdiak betidanik egon gara hezkuntza proiektuen inguruko hitzarmenak sinatzearen alde, baina prozesua nola joan den ikusita bi jarrera azpimarratu nahiko genituzke: EAJ-PNV alderdia eta Jon Redondoren jarrera negargarria batetik, Orioko herriaren indarra bestetik, herri konbentzimenduak eta ahaleginak lortu duelako hau guztia.

Oso luze joan den gai honetaz, azken aldean gertatu denari buruzko histori labur bat egitea komenigarria iruditzen zaigu:

2006an Udal Plenoak Ikastolarekin Hitzarmena egiteko akordioa onartu izana jartzen dugu abiapuntutzat. 2008ko maiatzean, alkateak bere kabuz Plenotik pasa gabe eta aurrez inori azalpenik eman gabe, hitzarmena etetea erabaki zuen. Gerora Udalaren izenean herritar guztiek engainatu nahi izan zituen gezur bat esanaz; Arartekoak emandako agindu batek behartu ziola erabaki hura hartzera zioen idatzi horrek, eta gezurra zen. Egon ezina, haserrea eta giroa gaiztotzea besterik ez zuen lortu horrekin.

Gerora 2010ean, eskola orduz kanpoko aktibitatearentzat diru laguntza araudi bat onartu zen. Ez zen inongo saiakerarik egin araudi hau eragileekin kontsentsuatzeko, aldiz kalera begira ez zegoen hobeagorik inon. Geroztik aipatzekoa da bereziki Hitzarmenaren alde egin den kanpaina herrian (H-ak balkoian, 1613 sinadura eta eragile zein herritar askoren babesarekin 2011ko apirilean egindako ekimenak).

Zenbat madarikazio, haserre, egon ezin eta buru hauste eragin duzu gai honetaz egindako kudeaketa penagarrien ondorioz Jon?

Orain bat-batean, Udal prozedura guztiak kontuan izan gabe (besteak beste, Hezkuntza batzordearen diktamena), duela gutxi arte hain ona zen araudia apurtu eta beste berri batekin zatoz Pleno honetara. Zer gertatu da orain arte herriaren onurarako ez zena, orain bat-batean sinatzeko? Seguru gaude galdera hau guztioi etorri zaigula burura. Ez gara saiatuko erantzuten zeren askotan galdera bera da zalantzaren baieztapena.

Arrazoiak izan genezake prozedura aldetik kontsentsuatuak akordio baten bila hitzarmen proposamen hau mahai gainean uztea eskatzeko, baina ulertzen dugu oinarri bezala baliagarria izan daiteken zerbait ikusteko premia eta nahi izugarria dagoela inplikatuaren aldetik. Gu ez gara nahi horren oztopo izango, lan asko eta borroka luzea egin baita. Beraz hobetu daitekeen eta hobetu behar den Hitzarmen proposamen honi baietz esaten diogu.

Eta batez ere: ez ahal zegoen guzti hau askoz hobeto egiterik? Adibidez, hezkuntza komunitatearekin zuzenean hitz egin eta akordioak bilatuz.

Jon Redondok alkate bezala erakutsi duen jarrera eta gaitasuna, egokiena al da oriotarrentzat?



Iñaki Iturain zinegotziak (EB-B/Aralar) hartzen du hitza eta, Orioko Udaleko Hezkuntza batzorde informatzailearen burua den aldetik, adierazten du zerbait esan nahi duela Joseba Goiburuk irakurritakoari erantzuteko. Iñaki Iturainek adierazten du Udalak apustu sendoa egin zuela iaz Orioko ikastetxeentzako diru-laguntzen deialdiarekin; ikastetxeekin alde aurretik adostutako oinarri batzuen anparoan egin zen deialdia, nahiz eta, azkenean, Orioko Herri Ikastolak erabaki zuen oinarri horiek ez onartzea eta, beraz, diru-laguntzarik ez eskatzea.

Iñaki Iturainek adierazten du, baita ere, sakoneko arazoak ikusten dizkiola kontu honi; batez ere, kontuan hartuta elkarlan-hitzarmen hauen gaia udal hauteskundeak izateko bost egun falta direnean planteatzen dela, hitzarmenen zirriborroak ez direla alde aurretik adostu ikastetxeekin eta, gainera, gaia ez dela ez aztertu eta ez diktaminatu dagokion batzordean: Udaleko Hezkuntza batzorde informatzailean.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hazienda, Pertsonala eta Kalitatea batzorde informatzaileak 2011ko maiatzaren 16an egindako bilkuran emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Genova (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Belasko (talde mistoa), Goiburu (talde mistoa), Zinkunegi (talde mistoa) eta Lasa (EA), guztira **ZORTZI ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz. Abstentzio botoak: Iturain (EB-B/Aralar), Garcia (EB-B/Aralar) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **HIRU ABSTENTZIO BOTO**]:

1.- **ONARTZEA** Orioko Udalaren eta Orioko lau ikastetxeen (Orioko Herri Ikastola kooperatiba elkarte, Zaragueta Herri Eskola, Maria Maestra haurreskola eta San Nikolas haurtzaindegia) lege-ordezkarien artean sinatuko diren elkarlan-hitzarmenen testua, bosgarren klausularen bukaeran goian azaldutako paragrafoa erantsiz.

2.- **AHALMEN ZABALA EMATEA** alkateari elkarlan hitzarmen horiek sinatzeko lau ikastetxeen lege ordezkariekin, Orioko Udalaren izenean.

5.- BEHIN-BEHINEKO ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, ORIKO HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN NAGUSIARI. PLAN NAGUSIA HONAKO HAUEK IDATZI DUTE: MANU ARRUABARRENA ETA SANTIAGO PEÑALBA ARKITEKTOEK ETA MIKEL IRIONDO ABOKATUAK.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Orioko udalbatzarrak honako erabakiak hartu zituen, besteak beste, 2011ko apirilaren 6an egindako ezohiko bilkuran:

1.- **LEHEN ONARPENA EMATEA** Orioko Hiri Antolamendurako Plan Nagusiari. Plan Nagusia honako hauek idatzi dute: Manu Arruabarrena eta Santiago Peñalba arkitektoek eta Mikel Iriondo abokatuak.



2.- **JENDAURREAN JARTZEA** dokumentu hori eta bere eranskinak, hilabeteko epean, iragarki bana argitaratuz Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta probintziako tirada handieneko egunkarian, interesatuek aukera izan dezaten alegazioak aurkezteko.

3.- **BERTAN BEHERA UZTEA** onarpenak, baimenak eta lizentziak indarrean dagoen erregimen urbanistikoa aldatzen den inguruetan, plana idatzi duen taldeak sortu dituen eta espedientean jasota dauden plano eta dokumentuen arabera. Bertan behera uzte horrek bi urteko iraupena izango du, gehienez.

Orioko Hiri Antolamendurako Plan Nagusia eta bere eranskinak jendaurrean jartzeko iragarkiak 2011ko apirilaren 11ko EL DIARIO VASCO egunkarian eta 2011ko apirilaren 12ko 70. zenbakidun Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren eta, beraz, jendaurreko epea 2011ko apirilaren 13an hasi eta maiatzaren 13an bukatu zen.

Orioko Hiri Antolamendurako Plan Nagusia eta bere eranskinak jendaurrean egon diren epean **EZ DA AURKEZTU** inolako alegaziorik.

Kontuan hartzekoa da Orioko Hiri Antolamendurako Plan Nagusia idaztearen azken helburua honako hau dela: indarrean dauden Udal Planeamenduko Arau Subsidiarioak egokitzea indarrean dauden hirigintza-arauei, Euskadiko Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen Bigarren Xedapen Iragankorraren 1. atalean —*in fine*— adierazten denari jarraituz.

Kontuan hartzekoa da Ingurumen Ministerioko Kantauriko Konfederazio Hidrografikoaren Uraren Batzordeak, behin Orioko Hiri Antolamendurako Plan Nagusiari buruzko dokumentazioa aztertu eta gero, honako hau erantzun duela, hitzez hitz: *...se ha podido comprobar que la zona de actuación se encuentra fuera del ámbito geográfico competencial de esta Confederación Hidrográfica del Cantábrico.*

Kontuan hartzekoa da Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentuko Kudeaketa eta Plangintzako Zuzendaritza Nagusiak, behin Orioko Hiri Antolamendurako Plan Nagusiari buruzko proposamena eta hori garatzen duen dokumentua aztertuta, honako hau erantzun duela, hitzez hitz: *...no existe inconveniente en lo que respecta a las competencias de este Departamento para la aprobación del Plan General de Ordenación Urbana de Orio.*

Kontuan hartzekoa da Ingurumen Ministerioko Itsasertzaren eta Itsasoaren Jasangarritasunaren Zuzendaritza Nagusiak txostena eman duela, 2011ko apirilaren 14ko dataz, egokiak iruditu zaizkion sujerentziak eta oharrak eginez Orioko Hiri Antolamendurako Plan Nagusiaren espediente urbanistikoari buruz, honako arauetan ezarritakoa betez: Itsasertzetako uztailaren 28ko 22/1988 Legearen 112-a eta 117.1 artikulua, eta Itsasertzetako Legea garatu eta exekutatzeko Araudi Orokorra onartzen duen abenduaren 1eko 1471/1989 Errege Dekretuaren 205. artikulua; txosten horretan, ondorio gisa, Zuzendaritza Nagusi horrek honako hau dio, hitzez hitz: *En consecuencia, una vez se ha tenido en cuenta lo indicado en el cuerpo del presente escrito, el expediente completo, corregido, diligenciado y previamente a su aprobación definitiva deberá remitirse nuevamente a esta Dirección General, a través del Servicio Provincial de Costas en Gipuzkoa, para la emisión del informe que disponen los artículos 112.a) y 117.2 de la Ley de Costas.*



Kontuan hartzekoa da Uraren Euskal Agentziari (URA) txostena eskatu zitzaiola Orioko Hiri Antolamendurako Plan Nagusiari buruz; baina, gaurko egunez, ez duela txostenik eman eta, beraz, betetzat jo daitekeela eskatutako tramitea; hortaz, Udalak jarrai dezake espediente urbanistiko horren legezko eta arauzko tramitazioarekin.

Kontuan hartzekoa da, azken batean, Orioko Udalak behar bezala bete duela Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 90.5 artikuluan —*in fine*— ezarritakoa, jakinarazi dielako Orioko Hiri Antolamendurako Plan Nagusiaren lehen onarpena eskumena duten administrazio publikoei, jakin dezaten eta dagokien txostena egin dezaten.

Kontuan hartzekoa da ekainaren 30eko 2/2006 Lege horren 90.6 artikuluan ezarritakoa: *Jendurreko erakustaldiaren emaitzak ikusita, udalak behin-behingo onartuko du plan orokorra, bidezko iritzitako egokitzapenak eginda. Dena den, egokitzapen horiek hasieran aurreikusitako egiturazko antolamenduaren funtsa aldatzen badute, udalak hasierako onespena eman beharko dio berriz planari eta jendurreko erakustaldia irekiko du berriz, behin-behingo onartu aurretik.*

Kontuan hartzekoa da, 2/2006 Legearen 91.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, foru aldundiek dutela plan nagusiak behin betikoz onartzeko eskumena 7.000 mila edo gutxiago biztanleko udalerrien kasuan; kasu horretan, aldeztu aurretik, txostena egin beharko du Euskadiko Lurraldearen Antolamendurako batzordeak.

Kontuan hartzekoa da 2/2006 Legearen 91.2 artikulua ezarritakoa: *Plan orokorra udalak onartuko du behin-behingo eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeari bidaliko dio. Batzordeak txostena egingo du, eta txostenak dioena loteslea izango da plan orokorra lurralde-antolamenduko tresnei egokitzeari dagokionez eta, aplikagarri den araudiaren arabera eta onartutako udalez gaineko proiektuen arabera, Estatuko, Autonomia Erkidegoko edo lurraldeko administrazioaren eskumeneko diren alderdi sektorial guztiei egokitzeari dagokionez.*

Kontuan hartzekoa da 2/2006 Legearen 91.3 artikulua ezarritakoa: *Batzordeak plana jaso eta hiru hilabeteko epean txostena eman ez badu, aurrera egin ahal izango da izapideekin. Plan orokor bat ezin izango da behin betiko onartu, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeak txostena eman ez bada edo hori egiteko epea amaitu ez bada. Manu hau bete gabe onartzen diren plan orokorrak erabat deusezak izango dira. Alabaina, txostena epez kanpo ematen bada, ez da nahitaez kontuan hartuko plana behin betiko onartzeko orduan.*

Kontuan hartzekoa da 2/2006 Legearen 91.4 artikulua ezarritakoa: *Beharrezko aldaketak eginda, udalak plan orokorra behin betiko onartuko du edo, bestela, foru-organoari bidaliko dio espedientea, hark hiru hilabete baino lehen behin betiko onartzeko.*

Ikusita udal arkitektoak 2011ko maiatzaren 16an emandako txostena.

Ikusita administrazio orokorreko teknikariak 2011ko maiatzaren 16an emandako txostena, udal idazkariak bere egiten duena, Toki Entitateen Antolamendu,



Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 173.1-b) artikuluan ezarritakoa betez.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta, informazio publikoaren emaitza ikusita, udaleko zerbitzu tekniko eta juridikoek emandako txostenak ikusita eta Gertutasuna, Giza Balioak eta Hirigintza batzorde informatzaileak 2011ko maiatzaren 16an egindako bilkuran emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Genoba (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Iturain (EB-B/Aralar), Lasa (EA) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz. Abstentzio botoak: Belasko (talde mistoa), Goiburu (talde mistoa) eta Zinkunegi (talde mistoa), guztira **HIRU ABSTENTZIO BOTO**. Kontrako botoak: Garcia (EB-B/A), guztira **KONTRAKO BOTO BAT**]:

1.- **BEHIN-BEHINEKO ONARPENA EMATEA** Orioko Hiri Antolamendurako Plan Nagusiari, udalbatzarrak 2011ko apirilaren 6an egindako ezohiko bilkuran eman zion lehen onarpenaren termino beretan, honako salbuespen bakarrarekin: Ingurumen Ministerioaren Itsasertzaren eta Itsasoaren Jasangarritasunerako Zuzendaritza Nagusiak 2011ko apirilaren 14ko txostenean egindako sujerentziak eta oharrak sartuko dira. Ez da egin, beraz, funtsezko aldaketarik hasieran aurreikusitako egiturazko antolamenduan. Plan Nagusia honako hauek idatzi dute: Manu Arruabarrena eta Santiago Peñalba arkitektoek eta Mikel Iriondo abokatuak.

2.- **BIDALTZEA** Orioko Hiri Antolamendurako Plan Nagusiari dagokion espediente urbanistikoa Euskadiko Lurraldearen Antolamendurako batzordeari, Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 91.2 artikulua aipatzen duen txostena eman dezan, ingurumen-eraginaren ebaluazio bateratuko txostenarekin batera; batzordeak plana jaso eta hiru hilabeteko epean txostena eman ez badu, aurrera egin ahal izango da izapideekin; plan nagusia ezin izango da behin betiko onartu, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeak txostena eman ez badu edo hori egiteko epea amaitu ez bada. Manu hau bete gabe onartzen diren plan orokorrak erabat deusezak izango dira. Alabaina, txostena epez kanpo ematen bada, ez da nahitaez kontuan hartuko plana behin betiko onartzeko orduan.

3.- Behin Euskadiko Lurraldearen Antolamenduaren batzordeak txostena ematen duenean hiru hilabeteko epe horretan edota epe hori agortzen bada batzordeak txostenik eman gabe, **BIDALTZEA** Orioko Hiri Antolamendurako Plan Nagusiari dagokion espediente urbanistikoa Gipuzkoako Foru Aldundiari, hark behin betiko onarpena eman diezaion hiru hilabeteko epean.

Emandako botoa azaltzeko, Iñaki Garcia zinegotziak (EB-B/A) hartzen du hitza eta adierazten du kontrako botoa eman duela, Orioko Hiri Antolamendurako Plan Nagusia gaur egungo Udal Planeamendurako Arau Subsidiarioen jarraipena delako eta Arau Subsidiario horiek dagoeneko sei kontrako epai jaso dituztelako: aurrenekoa, araei berei dagokiena; bigarrena, Arau Subsidiario horien Testu Bateginari dagokiona; eta gainerako lauak, Arau Subsidiarioetako 8. sektoreari —Munto— dagozkionak; nahiz eta onartzen duen epai horiek errekurrituta daudela dagozkion organo jurisdikzionaletan eta, beraz, ez direla irmoak.



Azkenik, udal idazkariak hartzen du hitza eta berriro dio Oriko Hiri Antolamendurako Plan Nagusia idaztearen azken helburua honako hau dela: indarrean dauden Udal Planeamenduko Arau Subsidiarioak egokitzea indarrean dauden hirigintza-arauei, Euskadiko Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen Bigarren Xedapen Iragankorraren 1. atalean —*in fine*— adierazten denari jarraituz.

Adierazten du, bestalde, egia dela Oriko Udal Planeamendurako Arau Subsidiarioak eta bere garapena eta gestio urbanistikoa indargabetzen dituzten sei epai daudela; baina epai horiek errekurrituta daudela eskumena duten organo jurisdikzionaletan (Auzitegi Gorenean eta Euskadiko Justiziako Auzitegi Nagusian) eta, beraz, ez direla irmoak; ondorioz, esaten du Arau Subsidiarioak guztiz indarrean daudela eta Oriko Udala behartuta dagoela, legez, horiek aplikatzera, segurtasun juridikoaren printzipioaren arabera.

Idazkariak adierazten du, nolnahi ere, indargabetze epai horiek ez dutela sakoneko arazorik sortzen, prozedurazko kontuei buruzkoak direlako, eta kontu horiek prozeduraren beste edozein momentu egokitan zuzen daitezkeelako; esaten du, baita ere, Oriko Arau Subsidiarioei buruzko prozedurazko kontua —hau da, azterketa ekonomiko-finantzario baten falta— dagoeneko zuzendu duela Oriko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak, 2010eko azaroaren 23ko bilkuran, behin betiko onarpena eman baitzion Oriko Udal Planeamendurako Arau Subsidiarioen Bideragarritasun Ekonomiko-Finantzarioari eta Programazioari buruzko Azterketari eta, horrekin batera, azterketa hori Arau Subsidiarioei eranstea eta argitaratzea erabaki baitzuen.

6.- BEHIN-BEHINEKO KALIFIKAZIOA EMATEA, EGOKI BADA, ORIOKO KASKO HISTORIKOA BIRGAITZEKO PLAN BEREZIAREN 3. HIRIGINTZA-JARDUKETAKO UDAL ETXEBIZITZA TASATUAK SUSTATZEKO PROIEKTUARI.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Proiektua Iñaki Etxeberria Izagirre eta Maria Etxeberria Goikoetxea arkitektoek idatzi dute eta LURRA PROMOCIÓN Y GESTIÓN SL entitate merkantilak sustatu du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, udal arkitektoak 2011ko maiatzaren 12an emandako txostena ikusita eta Gertutasuna, Giza Balioak eta Hirigintza batzorde informatzaileak 2011ko maiatzaren 16an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira, **HAMAIKA BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

Behin-behineko kalifikazioa **EMATEA** Oriko Kasko Historikoa Birgaitzeko Plan Bereziaren 3. hirigintza-jarduketako udal etxebizitza tasatuak sustatzeko proiektuari. Proiektua Iñaki Etxeberria Izagirre eta Maria Etxeberria Goikoetxea arkitektoek idatzi dute eta LURRA PROMOCIÓN Y GESTIÓN SL entitate merkantilak sustatu du.



7.- ONARTZEA, EGOKI BADA, TALDE MISTOKO KARMELE BELASKO, JOSEBA GOIBURU ETA LEIRE ZINKUNEGI ZINEGOTZIEK HONDAKINEN GESTIOA DELA-ETA AURKEZTU DUTEN MOZIOA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du; mozioak honela dio, hitzez hitz:

Usurbilgo Itunak honako MOZIOA aurkezten du Orioko Udalak bere egin dezan.

Hondakinen kudeaketaren inguruan eztabaida soziala puri-purian dago Gipuzkoan Hondakinak, hau da, lehengaiak zabor bilakatzen dira gaikako bilketarik behar bezala sustatzen ez delako. Ondorioz birziklagarriak diren lehengaiak nahasita bildurik arazo bihurtu dira eta, aldi berean, gure osasuna eta ingurumena kaltetuko lukeen errauste planta baten proiektua bultzatu nahi du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Ondorioz, errauste plantaren proiektuak 580 milioi euroko kostua izango duenez, udalok kezka bizi dugu egoera, datozen hamarkadatan menpekotasun ekonomikoak kezkatzeko gaituelako. Baina, aitzitik, udalok irizten diogu Gipuzkoan %80tik gorako bilketa selektiboa lortzen duten bilketa sistemak badaudela, eta hondakinen arazoari irtenbidea ematen diotela. Beraz, egoera honen aurrean udalerrri honek zera onartzen du:

1.- Hondakinen kudeaketa egiteko orduan gipuzkoarren osasuna lehenesten du irizpide gisa.

2- Osasunaz gain, hondakinak kudeatzeko orduan ingurumena kalte lezakeen edozein tratamendu baztertzen du.

3.- %80tik gorako bilketa selektiboa lortzeko bideak dauden bitartean hondakin eta isurketa toxikoak eragiten dituen errausketaren bidea baztertzen du.

4.- Hondakinak biltzeko orduan, Gipuzkoan indarrean dagoen 10/98 legea betearazteko konpromisoa hartzen du, zeinak dioen 5.000 biztanle baino gehiago duen udalerrriak derrigorrez materia organiko guztia gaika bildu behar dela. Era berean, 5.000 biztanle baino gutxiago ditugun udalerrriok ere lege honen edukiekin konpromisoa hartzen dugu.

5.- Gipuzkoan zero zabor programa edo zaborren kudeaketa errauskailua ez dela beharrezkoa azaleratuko duten programak garatzeko Zubietan egin nahi duten errauste plantan hiru urteko moratoria ezartzea eskatzen dio Gipuzkoako Foru Diputazioari.

6.-Errauste plantaren proiektuak 580 milioi euroko kostua duela kontuan hartuta eta udalbatzar honek ez duela ez eztabaidatu eta erabakirik hartu erabaki horren gainean, larritzat jotzen dugu proiektu honek hamarkadatan udal honi eragingo dion menpekotasun ekonomikoa.

7.- La Caixari, Banestori eta ElBri eskatzen diegu lanposturik sortzen ez duen eta etekin ekonomikoak lortu asmoz ingurumena eta osasun publikoa kaltetzen duen proiektuaren finantzazioa bertan behera uztea.



8.- Erabaki honen berri, herriko komunikabideez gain, Gipuzkoako Diputatu Nagusiari, Banestori, La Caixari eta ElBri jakinaraztea.

Alkateak hartzen du hitza eta, EAJren izenean, adierazten du bere talde politikoak mozioa onartzearen kontrako botoa emango duela, honako arrazoiengatik:

- Herritar guztiak daudela hondakin guztiak birziklatzearen alde; baina badagoela hondakinen portzentaje txiki bat birziklatu ezin dena eta, horiek deuseztatzeko, beharrezkoa dela errauste-planta bat egitea, hondakindegia berriak egokitzeko partez; esaten du, baita ere, errauste-planta horrek ingurumenari buruzko arau guztiak beteko dituela.

- Ondorioz, hondakinen gestioari buruz bi iritzi kontrajarri daude: Lehendabizikoa da kolore marroiko bosgarren edukiontzia aldeko apustua egiten duena hondakin organikoak jasotzeko, eta birziklatu ezin diren gainontzeko hondakinak errauste-planta deuseztatzeko lituzkeena. Bigarren iritzia, berriz, atez ateko bilketaren aldeko apustua egiten duena da; eta aukera horrek, nahitaez, hondakindegia berriak egokitzeko eskatzen du, birziklatu ezin diren hondakinak han uzteko.

Leire Zinkunegi zinegotziak hartzen du hitza, talde mistoaren izenean, eta adierazten du bere talde politikoak apustu sendoa egiten duela atez ateko bilketa-sistemaren alde eta, beraz, errauste-planta kontra daudela; batetik, kalte egiten dielako izaki bizidunen osasunari eta, bestetik, planta horren instalazioak hipoteka handia suposatzen duelako zergadun guztientzat. Azkenik, adierazten du bere talde politikoak, irtenbide errazenetara jo beharrean, apustu garbia egiten duela Zero Zabor eta horrelako ekimenen alde.

Udalbatzarra jakinarean gainean geratzen da eta, adierazitakoak ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Belasko (talde mistoa), Goiburu (talde mistoa), Zinkunegi (talde mistoa), Iturain (EB-B/Aralar), Garcia (EB-B/Aralar) eta Lasa (EA), guztira **SEI ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz. Kontrako botoak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Genova (EAJ), Del Hoyo (EAJ) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **BOST KONTRAKO BOTO**]:

ONARTZEA talde mistoko Karmele Belasko, Joseba Goiburu eta Leire Zinkunegi zinegotziek aurkeztutako mozioa, hondakinen gestioari buruzkoa, goian jasota dagoen bezalaxe.

Horrenbestez, alkate-presidenteak eskerrak ematen dizkie bilkuran dauden hamar zinegotzietan eta 2007-2011 agintaldi honetan zinegotzi izan diren beste hiruei, agintaldian egindako lanagatik; ondoren, bilkurari amaiera ematen dio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,